

# EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAREN ARTXIBO NAGUSIAREN MEMORIA

# 2023

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO  
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA  
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

## 01/ Giza baliabideak

Zerbitzuko arduraduna: 1  
Arloko arduraduna: 1  
Artxibozainak: 4  
Artxibozain laguntzailea: 1  
Administrazio-laguntzaileak: 2  
Administrari laguntzailea: 1  
Mandatari mendekoa: 2

## 02/ Instalazioak eta ekipamendu

### Lakua II eraikina:

156 m<sup>2</sup>-ko hiru gordailu eta 312 m<sup>2</sup>-ko beste 6 gordailu, armairu konpaktuekin.

### Gamarra eraikina:

15 metroko altuerako 11 korridore robotizatu, bi robotek kudeatutako eta 6.011 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen duten 25.000 erretilu edukitzailerekin.

Eraikin bietan funtzio anitzeko erreprodukzio-makinak daude (fotokopiagailuak, inprimagailuak eta digitaliza gailuak), transpaletak eta dokumentu-kutxak garraiatzeko orgak.

Kontsulta-gelan mikro formak irakurgailu-erreproduzigailu bat, eta hari lotutako PC bat eta inprimagailuak daude; 2 PC, AKS/SGA artxibo-kudeaketaren sistema informatikorako sarbidearekin.

### Gran Viako eraikina:

Gordailu bat, armairu konpaktuekin.

### Andia eraikina:

Gordailu bi, armairu konpaktuekin.

## 03/ Dokumentu kudeaketa

### 3.1. ARTXIBO NAGUSIAN SARTUTAKO AGIRIAK

Gordailuan sarreraren kopurua: **369**


Gordailuan sartutako kutxen kopurua, guztira: **14.180**

*Ekoizlearen araberako banaketa*

EKOIZLEA	GORDAILUAK	KUTXAK GUZTIRA	GUZTIAREN %
AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA	1	75	0,53
BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK	18	2035	14,35
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	53	342	2,41
EAE-KO DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA	5	0	0
EKONOMIAREN GARAPENA, SOSTENIBILITATEA ETA INGU- RUMENA	80	2516	17,74
EKONOMIA ETA OGASUNA	37	2118	14,95
HEZKUNTZA	26	1489	10,50
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	16	450	3,17
IZENPE	2	504	3,55
KONTSUMOBIDE	2	6	0,04
LANA ETA ENPLEGU	20	1064	7,50
LANBIDE	18	738	5,20
LEHENDAKARITZA	9	40	0,29
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK	22	501	3,53
OSAKIDETZA	7	484	3,41
OSALAN	10	865	6,10
OSASUNA	22	434	3,06
SEGURTASUNA	12	243	1,72
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	5	28	0,20
VIESA	4	248	1,75
<b>GUZTIRA</b>	<b>369</b>	<b>14.180</b>	<b>% 100</b>

## 2014-2023 bitartean sartutako kutxen kopurua

### SARRERAK





## 3.2. DOKUMENTU-XAHUKETAK

Artxibo Nagusian egindako xahuketen kopurua: **121**

Artxibo Nagusian guztira xahututako kutxen kopurua: **21.205 kutxa**

Bulegoko Artxiboan guztira xahututako kutxak: **183 kutxa**

Ezabatutako kutxen kopurua, guztira: **23.388 kutxa**

### Artxibo Nagusiko xahuketak

*Ekoizlearen arabera xehaturik*


EKOIZLEA	XAHUKETAK	KUTXAK GUZTIRA
BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK	13	1.065
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	5	302
EKONOMIAREN GARAPENA, SOSTENIBILITATEA ETA INGURUMENA	8	2.355
EKONOMIA ETA OGASUN	12	1.596
HEZKUNTZA	11	4.427
IZENPE	4	1.545
KONTSUMOBIDE	3	451
LANBIDE	20	4.204
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK	2	678
OSASUN	19	2.007
SEGURTASUN	18	1.265
SPRI	1	492
LANA ETA EMPLEGU	5	798
<b>GUZTIRA</b>	<b>121</b>	<b>21.205</b>

## Bulegoko Artxiboko xahuketak

*Ekoizleen araberako xehaturik*

EKOIZLEA	XAHUKETAK	KUTXAK GUZTIRA
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	1	19
SEGURTASUNA	1	164
<b>GUZTIRA</b>	<b>2</b>	<b>183</b>

Xahututako kutxa-kopurua: 2014-2023 bitartean



### 3.3. ARTXIBO NAGUSIAREN FUNTSEN HAZKUNDEA


2023ko bukaeran Artxibo Nagusian metatutako hazkundera hau izan da:

Gordailuak, guztira: **968.824 kutxa**

Garbiketak, guztira: **328.959 kutxa**

Artxibo Nagusiko kutxak 2023ko abenduaren 31n: **639.566 kutxa**

#### ARTXIBOAREN HAZKUNDEA





### 3.4. GORDAILU ROBOTIZATUAREN ERAIKINA

Instalazioan guztira **25.973** metalezko erretilu daude, eta **623.352** kutxa zuri normalizatu sartzeko edukiera dauka.

**2023-12-31n**, instalazioan guztira **502.951** kutxa daude, beraz, okupazio osoaren **% 80,67** hartzen dute. Dokumentuak zuri koloreko kutxetan eta marroi koloreko kutxetan gordetzen dira; hortaz, **28.973** kutxa zuri eta **91.428** kutxa marroi gordetzeko leku dago.



### 3.5. 3.5. ARTXIBO NAGUSIAN GORDETAKO AGIRIETARAKO IRISPENA

2023an egindako eskaerak, guztira: **7.567**

Horietatik,% 55 emakumeek egin dituzte (4.161) eta % 45 gizonek (3.406).


*Ekoizleen eta irispem-sistemaren arabera xehaturik*

EKOIZLEA	AKS-TIK KANPOKO IRISPENAK	AKS-KO IRISPENAK
ALOKABIDE	6	0
AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA	0	8
BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK	13	112
EKONOMIAREN GARAPENA, SOSTENIBILITATEA ETA INGURUMENA	3	4841
EKONOMIA ETA OGASUNA	12	101
ELANKIDETZA	0	3
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	67	285
HEZKUNTZA	98	161
IHOBE	0	42
IVAP	0	2
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	26	31
LANA ETA ENPLEGU	0	85
LANBIDE	352	1
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOA	159	288
OSAKIDETZA	26	10
OSALAN	0	53
OSASUNA	3	266
SEGURTASUNA	0	12
SPRI	0	73
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	1	13
URAREN EUSKAL AGENTZIA	0	253
VIESA	0	161
<b>GUZTIRA</b>	<b>766</b>	<b>6.801</b>


**Eskaerak: sistema eta motaren arabera**

ESKAERA-MOTA	AKS EZ	AKS	GUZTIRA
Mailegua	502	2.595	3.097
Kontsulta	198	4.206	4.404
Erreprodukzioa	34	0	36
Behin-betiko baztertzea	32	0	42
<b>GUZTIRA</b>	<b>766</b>	<b>6.801</b>	<b>7.567</b>

**Eskaerak: irispen-sistemaren arabera 2013-2022 bitartean**



Eskaerak, motaren arabera, 2014-2023 bitartean






*Erabiltzailearen eta irispem-sistemaren arabera*

ERABILTZAILE MOTA	GUZTIRA
ADMINISTRAZIOA	3.252
HERRITARRAK/IKERKETAK	4.315

**Erabiltzaile motaren araberako eskabideak, 2014-2023 bitartean**



### 3.6. BARNE KUDEAKETAKO JARDUERA

#### ERREPROGRAFIA

**Erreprografia zerbitzua.** Artxibo Nagusiak dokumentuak erreproduzitzeko zerbitzua ematen jarraitzen du, eta paperezko euskarrietan eta euskarri digitaletan ateratzen da. 2023an **12.594** euro fakturatu zaizkie ikertzaileei eta herritarrei.

#### BESTE EKINTZAK

**Ikertzaileen erregistroa.** 2012. urtean sortu zen. Guztira **1.622 erabiltzaile** erregistratu dira. 2023an **239** ikertzaile berrik eman dute izena.

**Agiriak txertatzea.** 2023an, **69** espedientetan gehitu dira agiriak.

### 3.7. ARTXIBO NAGUSIKO INFORMAZIOA-BALIABIDEAK

#### ARTXIBOA KUDEATZEKO SISTEMA (AKS/SGA) - S54B

##### *XML fitxeroen kargatzea*

Erregistroak kargatzeko programa horren bidez (jada gordailututa dauden edo transferitzeke dauden erregistroak), artxibatze-sisteman **261.957** erregistro kargatu dira aplikazioan 2023. urtean, eta **57.918** kutzetan zeuden.

##### *AKS aplikazioaren ezarpena*

Sailkapen-taula garatzen eta aplikazioa beste sail batzuetan eta sektore publiko osoan ezartzen jarraitu da.

2023-12-31n AKS/SGAn honako hauek daude deskribatuta:

☐ Bulegoko Artxibo mailan: **2.487.132** espediente.

☐ Artxibo Nagusian: **9.929.444** espediente.

### ***Aplikazioan ezarritako aldaketak***

2023an, honako zeregin hauek egin dira:

- ☐ Saillapen-taularen Balorazio Batzorde berriaren (COVASADE) eredu deskribatzailea eskakizunetara egokitzea.
- ☐ Artxibo Historikoaren aplikaziora transferentziak egiteko AKS/SGA egokitzea.
- ☐ Artxibo Nagusiko Kontsulta Gela Birtualaren eskakizun teknikoak aztertzea.
- ☐ AKS/SGAn deskribatutako toponimoak NORAkoei berrikustea eta zuzentzea.
- ☐ Xahuketak eta transferentziak bistaratzean aldaketak.
- ☐ Hobekuntzak AKS/SGAren kontsulten emaitzen bistaratzean eta emaitzen zerrendetan.
- ☐ Dokumentuak eta araudia serie batetik bestera kopiatzeko funtzionaltasuna.
- ☐ Sinadura elektronikoa bertsio berrietara egokitzea AKS/SGAn.
- ☐ Indize elkarreragilea sortzeko aukera ezartzea AKS/SGAn.

## 04/ Antolaketa

### 4.1. DOKUMENTU-FUNTSAK BERRANTOLATZEKO LANAK

#### ADMINISTRAZIO PUBLIKO FUNTSA

**DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA azpifuntsa**  
COVASADek identifikatu eta baloratu ditu Datuak Babesteko ordezkariak kudeatutako dokumentu-serieak. Itxitako espediente elektronikoak artxibatu dira.

#### URA FUNTSA

Uraren Euskal Agentziaren (URA) ikuskapenen prozedura digital berriak definitzen lagundu da.

URARI argibideak eman dizkio bere espedienteak AKS/SGAn artxibatzeko modulua garatzeko.

#### GIZARTE GAIEN FUNTSA

HELDUK gordailututako espedienteen inbentarioa amaitu da, eta AKS/SGAra sartu ondoren, COVASADek frogatu zuen xahuketa egin da.

#### KULTURA FUNTSA

##### *Ondare kultural atala*

Kultura-ondarearen dokumentazioa berrantolatu eta AKS/SGAra sartu da. Aldi berean, COVASADek zuzendaritzak kudeatutako serie guztiak baloratu ditu.

##### *Kultura Sustatzeko Atala*

AKS/SGAn oraindik kargatu ez den Zuzendaritzaren dokumentazioa berrantolatzen hasi da, eta, aldi berean, serieak identifikatzeko fitxak egiten hasi da, eta Balorazio Batzordeari bidaliko zaizkio.

#### OGASUN FUNTSA

##### *Kontrol Ekonomikoko atala*

2022an martxan hasi den EIKA kontabilitate-aplikazio berriaren arduradunekin bilerak egiten jarraitu da, kontabilitate-espedienteak artxibatzeko irizpideak ezartzeko.

1997tik 2021era bitarteko kontabilitatearen datu-baseak berrikusten ari dira, AKS/SGAn artxibatzeko beharrezko txostenak sortzeko.



## INDUSTRIA FUNTSA

### *Meatze eta harrobien atala*

Atal honetako prozeduren digitalizazioa ezarri da, eta haren dokumentu-serie guztiak baloratu ditu COVASADek.

### *Industrial Segurtasun atala*

Industria Administrazioako Ataleko teknikariek bilerak egin dira metrologiako, makinaren segurtasuneko, produktuen segurtasuneko eta beltzarantze-zentroetako prozedurak digitalizatzeko, bai eta instalazio erradioaktiboak digitalizatzeko ere. Atal honetako serie gehienak COVASADek baloratu ditu.

### *ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEaren azpifuntsa*

EEEk eta haren sozietate partaidetuek kudeatutako laguntza-serieak baloratzen jarraitu da. 2024an, kontserbazio-egutegiak gordailutu eta aplikatuko zaizkio artxiboetan dagoen dokumentazioari.

### *SPRI azpifuntsa*

SPRIk kontratatutako kanpoko enpresa baten laguntzarekin, Partaidetzako Sozietateen SPRIk gordailututako dokumentazio guztia berrantolatu da.

SPRIko informatikariek lankidetzan aritzen da, aplikazio propioek kudeatutako espediente elektronikoak artxibatze moduluak garatzeko eta azken urteetan sortutako dokumentazio elektronikoa aurkitzeko.

## JUSTIZIA FUNTSA

### *Espetxe Erakundearen atala*

#### *Bizkaiko espetxea*

2023ko uztailean, zentrotik Artxibo Nagusira lekualdatu ziren preso espedienteen lehen transferentzia egin zen 2022an. Guztira 1.232 kutxa transferitu ziren, 24.384 espedienterekin.

2023ko abenduan espedienteen bigarren lekualdaketa bat egin zen, 1980. urtetik 2000. urtera, gutxi gorabehera. Espedienteak kutxa normalizatuetan antolatze prozesuan daude, 2024an inbentarioa egiten hasteko.

#### *Gipuzkoako espetxea*

2023ko otsailean, Martuteneko Espetxetik Artxibo Nagusira eraman zen lehen dokumentazioa. 1947 eta 2000 urteen arteko espedienteak ziren.

Artxibo-sisteman lehenengo 432 kutxen edukia irauli da: 22.457 espediente. Gainerako dokumentazioaren inbentarioa amaitzen ari da, eta 2024ko lehen hiruhilekoan transferituko da Artxibo Nagusira.

#### *Zerbitzu zentralak*

Espetxeetako zerbitzu zentraletako langileei jarraibideak eman zaizkie dokumentazioa serieetan antolatzeko, eta lehen gordailuei ekin zaie.

Espetxeek Artxibo Nagusiarik egindako kontsultei erantzuteko protokolo bat prestatu da, eta funts horien espedienteen 6 kontsultari erantzun zaie.

Definitutako serie guztiak baloratu ditu COVASADek.

## INGURUMEN FUNTSA

### *Biodibertsitatea Kontserbatzeko atala*

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuak, Busturiako Madariaga Dorretxean kokatuta dagoenak, kontratu txiki bat sinatu du 2022an prozesatu gabe zegoen gainerako dokumentazioa antolatzeko. Enpresari jarraibideak eman dizkio serie berriak definitzeko eta dokumentazioa antolatzeko, eta 2024an gordailutuko da.

## LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO FUNTSA

### *Lurralde Plangintzaren Atala*

Zuzendaritzak gordailututako dokumentazioa aztertu da, serieak definitu dira, dokumentazioa serie horien arabera berrantolatu da eta 6.000 espediente-kaxa baino gehiago AKS/SGAn kargatzea adierazi da. COVASADek dokumentu-serie guztiak baloratu ditu.

### *Kartografia Atala*

Zuzendaritzak gordailututako dokumentazioa aztertu du, serieak definitu ditu, dokumentazioa serie horien arabera berrantolatu du eta espedienteen informazioa AKS/SFAn kargatu du. COVASADek serie guztiak baloratu ditu.

Bestalde, Kartografia Zerbitzuak aireko argazkien antzinako bildumak digitalizatzeko proiektu pilotu bat hasi du.

## OSASUN FUNTSA

### *Osasun Publikoko Atala*

Jarraibideak eman dira Euskadiko txertaketen erregistroa osatzen duten eta digitalizatzen eta indexatzen ari diren 1.000 kaxa inguru artxibatzeko.

### *Osasun Plangintzako Atala*

Bilerak egin dira Medikamentuen Etika Batzordeko langileekin, gutxi gorabehera 1.200 kutzak saiakuntza klinikoan espedienteekin, Batzordearen aktekin eta beste prozedura batzuekin prozesatzeko.

## ETXEBIZITZA FUNTSA

### *Babes Ofizialeko Etxebizitzen Atala*

Arabako Ordezkaritzaren errenta mugatuko etxebizitzaren espedienteak inbentariatu eta georreferentziatu dira (1950-1980 urteak), eta AKS/SGA Artxibo Sistemara irauli dira.

Lan bera hasi da Gipuzkoako Ordezkaritzaren espedienteekin, eta lan hori 2024an amaitzea espero da.

## 4.2. DOKUMENTU-KUDEAKETAREN ANTOLAKETA

### DOKUMENTUAK KUDEATZEKO EREDUA - Dokusi

Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren, EJI Eren eta Artxibo Nagusiaren arteko diziplinarteko lantaldean honako gai hauek jorratu dira:

- ▣ Sinadura elektronikoaren politikaren agindu berrian sartu beharreko aldaketak aztertzea.
- ▣ Espediente elektronikoak ixteko eta artxibatzekeko instrukzioaren berri ematea eta jarraipena egitea sailei.
- ▣ Herritarrei ematen zaien erregistro-frogagiriaren betekizunak aztertzea.
- ▣ Tramitazioa-Artxibatzea modulua hobetzea eta zabaltzea, Tramitaguneko espedienteen egoera kontrolatzeko aukera ematen duena: irekiak, itxiak, artxibatzeke, errorea eman duten artxibatuak, behar bezala artxibatuak.
- ▣ Espediente elektroniko osoak automatikoki artxibatzekeko prozedura definitzea.
- ▣ Asmo Orokorreko Erregistro Zerbitzua berrikustea, idazpenak dagokion seriean tratatzeko.

2023an, 111 dokumentu-serieri kodeak esleitu zaizkie guztira.

## DOKUSIREN OKUPAZIOARI BURUZKO TXOSTENA

Artxibo Nagusiak Dokusiren okupazio-mailaren jarraipena egiten du hiru hilean behin.

2023an zehar eboluzio hau izan da Dokusiren memoria okupatuan eta dokumentu kopuruaren hazkundera:

Data	2018/12/31	2019/12/31	2020/12/31	2021/03/31	2021/06/30	2021/09/30	2021/12/31	2022/12/31	2023/12/31
Dokumentuak, guztira	23.646.889	32.222.083	42.828.104	45.786.341	49.973.937	53.623.848	58.670.279	76.146.462	94.588.522
Memoria, guztira	8,57TB	12,04 TB	17,71 TB	19,51TB	22 TB	24,1 TB	27,2TB	36,64 TB	46,70TB

**Hilean 1.536.838** dokumentu hazi dira, batez beste 2023 urtean.

## DOKUMENTU ELEKTRONIKOAK KUDEATZEKO POLITIKAN EZARRITAKO AUDITORETZETARAKO APLIKAZIOA

2023an, beharrezko aldaketak egin dira auditoriak egiteko aplikazioan, eta aldaketa horiek auditoria pilotuaren ondoren detektatu dira.

### 4.3. DOKUMENTAZIOAREN BALORA- ZIORAKO, AUKERAKETARAKO ETA DOKUMENTAZIORA JOTZEKO BATZORDEA (COVASAD)

Bi bilera egin dira: urriaren 5ean eta azaroaren 29an. Horietan, 256 serie baloratu dira, guztira, honako erakunde hauetako funts eta azpifuntsetatik: Administrazio Publikoa, Nekazaritza, Urak, Gizarte Gaiak, Kultura, Hezkuntza, Emakunde, Industria, Justizia, Lanbide, Lurraldearen Antolamendua, Datu pertsonalen babesa, Osasuna, SPRI, Lana eta Garraioak.

2023ko martxoaren 27ko *AGINDUA argitaratu da, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Nekazaritza, Gizarte Gai, Ur, Energiaren Euskal Erakunde, Garraio, Industria, Justizia, Arrantza, Osasun eta SPRIren funts eta azpifuntsei dagozkien kontserbazio-egutegiak onartzen dituena, Dokumentazioa Balioesteko, Hautatzeko eta Eskuratzeko Batzordeak (COVASAD) 2022ko azken saioan aztertutako serieei dagokienez.*

## 05/ KANPO- HARREMANAK ETA PRESTAKUNTZA

### BISITAK ARTXIBO NAGUSIRA (GAMARRAKO ERAIKINA)

Azaroaren 17an, ALDEEko (Euskal Herriko Artxibozain, Liburuzain eta Dokumentalisten Elkarte) kideek bisita gidatu bat egin zuten Artxibo Nagusiaren Eraikin Robotizatura, eta bertan instalazioaren eta Artxibo Sistemaren funtzionamendua erakutsi zitzaien.

### TEKNIKARIEKIKO BILERAK

2023ko urtarrilaren 26an, ALDEErekin elkarlanean antolatutako jardunaldi bat egin zen Eusko Jaurlaritzako Areto Nagusian, "Dokumentuen kudeaketa datuen aroan. Jordi Serra Serra (Bartzelonako Hezkuntza Partzuergoa), Pilar Campos Martinez (Bartzelonako Ogasuneko Udal Institutua), Beatriz Franco Espina (Madrilgo Erkidegoko Artxiboen eta Dokumentu Kudeaketaren Zuzendariorde Nagusia), Iñaki Miguel eta Iruñe Zumalde (EAEko Sektore Publikoko Artxibo Nagusia).

Jardunaldira 85 pertsona bertaratu ziren, eta 375 lagun etorri ziren online.

2023ko ekainaren 16an, Madrilgo Erkidegoko Artxibo eta Dokumentuei buruzko ekainaren 30eko 6/2023 Legea aurkezteko jardunaldi tekniko bat egin zen Madrilan, eta bertara gonbidatu ziren Iruñe Zumalde eta Borja Aguinagalde, Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentu-kudeaketa integralari eta dokumentu-ondareari buruzko ekainaren 23ko 5/2022 Legea aurkezteko, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoko ordezkari batekin batera.

Irailaren 21ean eta 22an, Ferrolen, portuetako dokumentuak eta artxiboak kudeatzeko VI. Jardunaldi teknikoak egin ziren, eta Iruñe Zumaldek parte hartu zuen, "Artxibo analogikoko sistema bat izapidetze elektronikora egokitzea: eskakizunak, arazoak, abantailak, erronkak etorkizunera" izenburupean.

Artxibo Nagusiko teknikarietako batek, Iñaki Miguelek, Kataluniako Artxibistika eta Dokumentuen Kudeaketari buruzko XIX. Kongresuan parte hartu zuen, Sant Cugatena, maiatzaren 4, 5 eta 6an. Iñaki Miguelek hitzaldi bat eman zuen gai honi buruz: "Aplicación de Records in Contexts - Eusko Jaurlaritzaren dokumentu-kudeaketaren ereduaren ontologia".

### DOKUMENTAZIOA BALIOESTEKO ETA AUKERATZEKO BATZORDEA (COVASED)

Zerbitzuaren arduraduna COVASEDen bilera batera joan zen 2023ko otsailaren 24an. Bertan, besteak beste, COVASADek 2023ko azaroaren 30eko bilkuran egindako proposamenak baliozkotu ziren.

## IRAKASKUNTZA ETA EMANDAKO PRESTAKUNTZA

### *Prestakuntza AKS/SGA sisteman eta espedienteen artxibatzean*

Artxibo Nagusiak espediente elektronikoak, mistoak edo paperezkoak kudeatzen dituzten bulego guztiei ematen die laguntza artxibatzekeo prozesuan. Beraz, banakako prestakuntza ematen zaie aplikazioa eskatzen duten langile guztiei. Teknikariak arduratzen dira esleituta dituzten arlo funtzionalak prestatzeaz.

2023an zehar, artxibo-arloko arduradun M<sup>a</sup> Jose Alfarok eta artxibo-teknikari Iñaki Miguelek IVAPek antolatutako ikastaro bat eman dute, "E-Administrazioa eta dokumentu-kudeaketa (Dokusi eta AKS/SGA) Administrazio Publikoko langileei. Prestakuntzak 20 orduko iraupena izan zuen, 5 egunetan banatuta.

Datuak Babesteko ordezkariak, M<sup>a</sup> José Alfarok, eskatuta, jardunaldi teoriko/praktiko bat eman zuen "Dokusi" eta "Espedienteak izapidetzea - artxibatzea bezeroa" moduluei buruz. Bulegoa osatzen duten langile guztiak bertaratu ziren lanaldia.

### *Collegi Oficial de Bibliotecaris i Documentalistes de la Comunitat Valenciana (COBDCV)*

Artxiboko teknikariak, Iñaki Miguelek, online ikastaro bat eman du azaroan eta abenduan, 5 jardunalditan zehar, "Records in

context. Manos a la obra", Valentziako Erkidegoko Liburuzain eta Dokumentalisten Elkargo Ofizialak antolatuta.

### *Artxibo, Bibiloteka eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarte (ALDEE)*

ALDEEK antolatuta, "Records in Contexts: deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau berria" gaiari buruzko aurrez aurreko ikastaroa egin da urriaren 2an eta 3an. Iñaki Miguelek ikastaroa osorik osatu zuten bi eskolak eman zituen, 9 ordukoak guztira.

## JASOTAKO IRAKASKUNTZA

M<sup>a</sup> Jose Alfaro, artxibo-arloko arduraduna, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarteak (ALDEE) antolatutako ikastaro batean izan da urriaren 2an eta 3an, "Records in Contexts: deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau berria" gaiari buruz.

## LANKIDETZA KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILAREKIN

2023an, Kultura Ondarearen Zuzendaritzarekin lankidetzan jarraitu da Legea garatzeko araudia egiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Kontseilua arautzen duen dekretu-proiektua egiten lagundu da, izapideen azken fasean dagoena.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazioaren Baloraziorako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora Jotzeko Batzordea arautuko duen Dekretuaren proiektua idazten lagundu da, bai eta bere espedienteak izapidetzeko balioko duen aplikazioaren diseinuan ere.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Artxibo Sistemaren Erregelamenduaren Dekretuaren proiektua idazten lagundu da. Proiektua jendaurrean jartzeko fasean dago.

Euskadiko Artxiboen Sistemari zerbitzua emango dion aplikazioa abian jartzeko bilerekin jarraitu da, eta horrek aldaketak ekarri ditu transferentzien zatian eta dokumentu-segiden identifikazioan EAEko Sektore Publikoaren Artxibo Sistemaren aplikazioan. (AKS/GSA).

Artxibo Nagusiaren eta Artxibo Historikoaren artean erregistroak transferitzeko lehen probak egin dira bi

aplikazioen artean. Transferentzia horiek, lehen aldiz, 2024an gauzatuko dira.

## SARE SOZIALETAN PARTE HARTZEA: TWITTER

Artxibo Nagusiak 238 tweet argitaratu zituen urtean zehar. 583 jarraitzaile ditu guztira.



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

GOBERNANTZA PUBLIKO  
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA  
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2024